

***Itzulera baten historia. Martín Ugalde***

I. Iraeta

*HABE*, 185. zk., 1990-11-14: 29.

Exilioak badu alderdi epikoa, baina baditu beste mila alderdi triste ere: eguneroko bizitza zailtzen duena, familiak sakabanatu eta zatitzen dituena,... Guzti horiek agertzen dizkigu autoreak elaberri hunkigarri honetan. Erbesteratzearen alderdi intimoaz mintza zaigu. Familia baten apurketa kontatzen du, haur baten ikuspegitik.

Protagonista hamar urteko neskato izuti eta bakartia da. 1945eko Caracasen bizi da. Gurasoek ezin dute Euskal Herrira itzuli, baina seme-alaba, zaharrenak hona bidaliko dituzte, "erroak" gal ez ditzaten. Gure neskatxoa, ez hemengo ez hango sentituko da. Itzulera baten historia baino, burutu ezin den itzuleraren historia da. Neskatxa izuti eta sentibera honen bitartez, gizakia eta beronen bizi-taupadak jartzen dizkigu gailen edozein tesiren gainera.

1921ean jaio zen Martin Ugalde. Elaberriko protagonistek bezala, Venezuelara alde egin zuen. Han hasi zen kazetaritza eta literatur lanetan. Liburu asko idatzi baditu ere, bere lehendabiziko elaberria da eta, lan honetan frogatzen duen bezala, literaturarako sen aparta du.

Badira liburu batzu, ikasle batek berak bakarrik irakurtzeko zailegiak eta ikasgelan irakurtzeko, berriz, aspergarriak. Baina espreski prestatutako hiztegitxo baten laguntzaz gustora irakur daitezke. Modu honetan zailtasunak arindu eta irakurleari (ikasleari kasu honetan) historian murgiltzea errezagoa izango zaio. Horrelako zerbait merezi luke liburu honek.